

## Bestelako Xedapenak

### INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

6294

AGINDUA, 2010eko abenduaren 1ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, paperezko udal-mapa toponimikoak egiteko dirulaguntzak arautzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalei paperean udal-mapa toponimikoak egiteko dirulaguntzak emateko da agindu hau. Lan horiei esker, toponimia berrikusi ahal izaten da, eta jende artean erraz zabaltzeko modukoa eta herritar guztientzat erakargarriak den produktu bat sortu, hainbat lan-arlotarako balio duena eta lurralde osoan aplikatu daitekeena.

Hori dela-eta, Gobernu Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 26. artikulua ematen dizkidan eskumenak baliatuz, eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espeditenteen aurretiko izapidetzea araupetzen du agindu horrek), hau

#### EBATZI DUT:

##### **1. artikulua.**– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da honako lan hauek egiteko soldatak ordaintzeko dirulaguntzak arautzea:

Papereko udal-mapa toponimikoa, 1/30.000 eskalako edo zehatzagoa. Eskaria udal batek egiten badu, mapak udal-lurralde osoa bildu beharko du, edo, 3. artikuluan zehazturik dagoen beste erakunderen batek eskatzen badu dirulaguntza, ordezkatzen duen lurralde osoa bildu beharko du. Azken kasu horretan, erakundearen azalera osoa 300 km<sup>2</sup>-koa edo handiagoa denean, eskala 1/45.000 edo zehaztasun handiagokoa izango da.

Lanerako oinarri modura, erakunde eskari egileak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren leku-izenak erabiliko ditu. Leku-izen horiek eskuratzeko, idatziz eskatu beharko dio.

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzako Lurralde Informazioarako Zerbitzuak emango du gutxieneko

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

6294

ORDEN de 1 de diciembre de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se regula la concesión de subvenciones para la realización de mapas municipales toponímicos en papel.

La presente Orden tiene por objeto la concesión de subvenciones a los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con la finalidad de realizar mapas municipales toponímicos en papel. Estos trabajos permiten revisar la toponimia, y generar un producto de fácil difusión y atractivo para todos los ciudadanos, válido para multitud de disciplinas y aplicable a la totalidad del territorio.

En su virtud, y de conformidad con las competencias que me atribuye el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, y en base a lo establecido en la Orden de 26 de abril de 2007 del Departamento de Hacienda y Administración Pública por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

#### RESUELVO:

##### **Artículo 1.**– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden regular la concesión de las subvenciones destinadas a cubrir gastos correspondientes a los honorarios de la realización del siguiente tipo de trabajo:

Mapa municipal toponímico en papel, a escala igual o de mayor detalle que 1/30.000. Dicho mapa habrá de abarcar la totalidad del término municipal, en el caso de que la entidad solicitante sea un Ayuntamiento o, en el caso de que la subvención sea solicitada por alguna otra entidad de las contempladas en el artículo 3, la totalidad del territorio que represente. En este último supuesto, cuando la superficie total de la entidad sea igual o superior a 300 km<sup>2</sup>, la escala será igual o de mayor detalle que 1/45.000.

La entidad solicitante utilizará la toponimia de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco como base para el trabajo, y para obtenerla remitirá una solicitud escrita a dicha institución.

Los trabajos se ejecutarán con sujeción al pliego de bases técnicas mínimas actualizado según la última

oinarri teknikoen plegua, azken berrikuspenaren arabera eguneratua, eta orri horren arabera egin beharko dira lanak.

2.– Agindu honetan jasota datorren araubidearen itzalpean, lan hauek jaso dezakete dirulaguntza: 8. artikuluko kontratazio-baldintzak bete behar dituzte eta agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren hasitakoak behar dute izan. 6.3 artikuluan jartzen duenaren arabera, agindu hau EHAA n argitaratu arte, bi urte baino mapa zaharagoak berritzeko edo eguneratzeko lanak ere lagundu daitezke diruz. Epe hori aurreko lanaren faktura-egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

**2. artikulua.**– Baliabide ekonomikoak.

452.278 euro erabiliko ditugu dirulaguntza hauek ordaintzeko.

**3. artikulua.**– Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan zehazturik dauden baldintzak, eskakizunak eta prozedurak betez gero, dirulaguntza honetako onuradunak izan daitezke Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalak, partzuergoak, mankomunitateak eta udal-elkarteak.

2.– Dirulaguntzak eta laguntzak eman eta, ordaindu behar badira, ordaindu ahal izateko, beste baldintza hau ere bete beharko da: lehenagotik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak emandako mota bereko dirulaguntza edo laguntzen kopururen bat itzultzeke edo zehapenen bat betetzeke baldin badago, ezinbestekoa izango da prozedura hori ebatzita uztea.

3.– Dirulaguntzak eskuratzeko, erakunde eskari-egileek ezin dute, zigor-arloan edo administrazio-arloan zehaturik daudela-eta, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galduta eduki, edo, legezko debekuren baten pean daudela-eta, halakoak jasotzeko gaitasunik gabe egon.

**4. artikulua.**– Eskabideak aurkeztea eta bete beharreko agiriak.

1.– Dirulaguntza eskatzeko aurkeztu beharreko agirien zerrenda duzue jarraian. Alkateek edo mankomunitateetako, udal-elkarteetako edo partzuergoetako lehendakariak aurkeztu behar dituzte, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, Zuzenean zerbitzuko herritarrei laguntzeko guneetan (telefonoa: 012; edo webgunean: www.euskadi.net) zein Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzan, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992

revisión, que facilitará el Servicio de Cartografía de la Dirección de Ordenación del Territorio.

2.– Al amparo del régimen contemplado en la presente Orden, podrán ser objeto de subvención aquellos trabajos que, reuniendo los requisitos de contratación expresados en el artículo 8, se hayan iniciado con posterioridad a la fecha de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Igualmente podrán ser objeto de subvención, de conformidad con lo establecido en el artículo 6.3, los trabajos de renovación o actualización de aquellos mapas cuya antigüedad sea superior a los dos años contados desde la fecha de la factura del trabajo anterior y hasta de fecha de publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Artículo 2.**– Recursos económicos.

A la financiación de la subvención que se convoca se destinará la cantidad de 452.278 euros.

**Artículo 3.**– Entidades beneficiarias.

1.– Podrán acceder, con arreglo a las condiciones, requisitos y procedimiento que se establecen en la presente Orden, a la condición de beneficiarios de la subvención, los Ayuntamientos, Parzonerías, Mancomunidades y Asociaciones de municipios de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

2.– La concesión y, en su caso, el pago de la subvención y ayuda a las beneficiarias de ésta, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– Para acceder a la subvención las entidades solicitantes habrán de reunir el requisito de no encontrarse sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o hallarse incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello.

**Artículo 4.**– Presentación de solicitudes y documentación a cumplimentar.

1.– Para solicitar la subvención indicada, las personas que ostenten la alcaldía de los Ayuntamientos y/o la Presidencia de las Mancomunidades, Asociaciones de Ayuntamientos o Parzonerías, deberán presentar en el plazo de dos meses, a contar a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, en los puntos de atención al ciudadano del Servicio Zuzenean (Información en el teléfono 012 o, a través del portal www.euskadi.net), así como ante la Dirección de Ordenación del Territorio, por cualquiera de los medios

Legean jasotako bideetako edozein erabiliz. Hona hemen agiri horiek:

a) Eskabidea. Mapa zein eskalatakoa izango den ere zehaztu behar da, 1.1 artikulua erabera.

b) Beste erakunderen batean gauza bera egiteko dirulaguntzarik eskatu bada, edo jaso bada, laguntza horiek zenbatekoak diren egiaztatzeko agiriak. Beste dirulaguntzarik ez bada ez eskatu ez jaso, adierazpen batean hala adierazi, sinatu, eta eskabideari erantsi.

c) Laguntza eskatzen duen erakundeak adierazpen bat aurkeztu beharko du, esateko ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen zehazpen penal edo administratiborik eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere ez duela.

2.- Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzak ikusten baldin badu eskabidean badela akatsen bat edo zehatz-zehatza ez den zer edo zer, eskari-egileari jakinaraziko dio eta 10 egun emango dizkio zuzendu beharrekoa zuzentzeko. Epe hori zuzenketarik egin gabe igaroz gero, eskabideari uko egin diola ulertuko da, horretarako behar den ebazpena eman ondoren (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua xedatzen duenaren arabera emandako ebazpena).

### 5. artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.- Formula hau erabiliko da dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zehazteko:

Kontu egin «H» gehieneko dirulaguntza dela, eurotan; eta «S» dena delako herriaren, partzuergoaren edo udal-elkartearen azalera, kilometro koadrotan.

$H = 10.000$ , baldin eta «S»  $30 \text{ km}^2$ -koa edo txikiagoa bada.

$H = 9.000 + 100 \times S/3$ , baldin eta «S»  $30$  eta  $90 \text{ km}^2$  bitartekoa bada.

$H = 12.000$ , baldin eta «S»  $90 \text{ km}^2$ -koa edo handiagoa bada.

Dirulaguntza ez da inoiz  $12.000$  euro baino gehiagokoa izango.

2.- Beste muga bat ere badago, agindu honen itzalpean ordaindutako dirulaguntzek inoiz ere gainditu ezin dutena: fakturan jasota dauden lanen artetik, diruz lagundutako horiek burutzeko soldaten kostu garbiaren % 70 (soldata garbia: BEZa eta gainerako zergak kenduta).

3.- Agindu honetako 6. artikuluan jasota datorren hainbanatze-irizpidea dela-eta, baliteke, azkenean,

previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la siguiente documentación:

a) Escrito de solicitud, con indicación de la escala a la que se va a realizar el trabajo, de acuerdo con el artículo 1.1.

b) Certificación de las cuantías que, en su caso, hayan sido solicitadas a otros entes, u otorgadas por los mismos, con la misma finalidad. De no haber sido solicitada ni concedida ninguna otra subvención, se acompañará a la solicitud, declaración responsable en tal sentido.

c) Declaración responsable de que la entidad solicitante no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello.

2.- Si la Dirección de Ordenación del Territorio advirtiera en la solicitud presentada algún defecto o inexactitud, lo comunicará al solicitante concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

### Artículo 5.- Cuantía de las subvenciones.

1.- La cuantía máxima de la subvención se determinará aplicando las siguientes fórmulas:

Siendo «H» la subvención máxima expresada en euros, y «S» la superficie del municipio, parzonería o asociación de municipios, expresada en kilómetros cuadrados.

$H = 10.000$ , para valores de «S» inferiores o iguales a  $30 \text{ km}^2$ .

$H = 9.000 + 100 \times S/3$ , para valores de «S» comprendidos entre  $30$  y  $90 \text{ km}^2$ .

$H = 12.000$ , para valores de «S» superiores o igual a  $90 \text{ km}^2$ .

La subvención en ningún caso tendrá un importe superior a  $12.000$  euros.

2.- En ningún caso, la cantidad efectivamente abonada con cargo a esta Orden podrá superar el 70% del coste neto (excluidos IVA y demás impuestos) de los honorarios de la realización de los trabajos subvencionados indicados en la correspondiente factura.

3.- Las cuantías de las subvenciones que finalmente se concedan podrán ser inferiores a los impor-

artikulu honetako formula horiek aplikatuz lortzen direnak baino kopuru txikiagoak ordaintzea.

**6. artikulua.**– Dirulaguntzak esleitzeko prozedura.

Dirulaguntza esleitzeko, 7. artikuluko kudeaketa-organoa irizpide hauek izango ditu kontuan:

1.– Mapa estreinakoz egin behar duten erakundeen eskabideak hartuko dira lehenengo aintzat.

2.– Eskabide horiei dagozkien dirulaguntzak 5.1 artikuluan jarrita dagoen bezala kalkulatu, eta ateratzen den kopurua 2. artikuluan jasota datorren gehieneko kopurua baino handiagoa baldin bada, bakoitzari zenbat eman jakiteko, gehienezko kopuru hori hainbanatu egin beharko da.

3.– Ordea, lehenasunezko eskabide horiei erantzun, eta oraindik dirurik sobran baldin badago, berrietzeko edo eguneratzeko eskabideak hartuko dira segidan aintzakotzat. Horretarako, 1.2 artikuluan jasota dagoen antzinasun-irizpidea bete beharko dute, eta zaharretik berrienera banatuko da dirua, harik eta, amaitzen bada, dirua amaitu arte.

**7. artikulua.**– Prozeduren kudeaketa eta ebazpena.

1.– Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzari dagokio agindu honetan aurreikusten diren prozedurak kudeatzeko lanak egitea.

2.– Lurralde Antolamenduko zuzendariak eta zuzendaritza horretako bi teknikarik egingo dute dirulaguntzak emateko dena delako proposamena (teknikari horiek zuzendariak izendatuko ditu). Gero, proposamen hori Lurralde Plangintza eta Uren sailburuordearen eskuetan utziko dute, eta hark ebatziko du dena delako dirulaguntza eman edo ez, eta, ematekotan, zenbatekoa izango den. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aurrera, gehienez hiru hilabeteko epea izango du ebazpen hori hartzeko.

3.– Dirulaguntza eskatu duten erakundeei ebazpenaren berri banan-banan eman behar zaie. Horrek ez du esan nahi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar ez denik, denok izan dezagun ebazpenaren berri.

4.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, jakinarazpenaren biharamunetik hilabeteko epea amaitu baino lehen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jartzen duenaren arabera.

tes inicialmente calculados con arreglo a las fórmulas contempladas en este artículo, en el supuesto de aplicación del prorrateo o regla proporcional prevista en el artículo 6 de esta Orden.

**Artículo 6.**– Procedimiento de adjudicación de las subvenciones.

Para la adjudicación de la subvención que se convoca, el órgano de gestión previsto en el artículo 7, tendrá en cuenta los siguientes criterios:

1.– Se atenderán, en primer lugar, las solicitudes de las entidades que vayan a elaborar el mapa por primera vez.

2.– Si el volumen total de los importes calculados con arreglo a lo previsto en el artículo 5.1, de las subvenciones correspondientes a estas solicitudes, superase la dotación económica consignada en el artículo 2, se aplicará el criterio de prorrateo o regla proporcional para la determinación del importe a conceder.

3.– Si, por el contrario, una vez atendidas las indicadas solicitudes preferentes, restase algún excedente en la dotación de la línea, se atenderán con él, en segundo lugar, las solicitudes de renovación o actualización, que reúnan el requisito de antigüedad previsto en el artículo 1.2, siguiendo un orden descendente de antigüedad hasta el agotamiento, en su caso, de la dotación económica asignada.

**Artículo 7.**– Gestión y resolución de los procedimientos.

1.– Corresponde a la Dirección de Ordenación del Territorio la realización de las tareas de gestión de los procedimientos previstos en la presente Orden.

2.– El Director de Ordenación del Territorio y dos miembros del personal técnico adscritos a su Dirección designados por éste, realizarán la correspondiente propuesta de concesión de las subvenciones y la elevarán al Viceconsejero de Planificación Territorial y Aguas, quien dictará en un plazo máximo de tres meses, contados a partir del día siguiente de la finalización del plazo de presentación de solicitudes, resolución en la que se determinará la adjudicación o denegación de las subvenciones, y en el primer supuesto, la cuantía de las mismas.

3.– La resolución que se adopte, será notificada individualmente a las entidades solicitantes de las subvenciones, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco a los efectos de su general conocimiento.

4.– Contra esta resolución podrá presentarse recurso de alzada ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado desde el día siguiente al de la notificación de la misma, según lo establecido por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Epe hori amaitu eta oraindik ez bada ezer jakinarazi, erantzuna ezezkoa dela pentsa daiteke, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44. artikuluan zehazturik dauden ondorioetarako. Horrek ez du esan nahi ordea, lege horretan hala jartzen baitu, administrazioak berariaz ebatzi beharrik ez duenik.

**8. artikulua.**– Dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren edukia.

Dirulaguntzak esleitzeko ebazpenean, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 51.7 artikuluan aipatzen diren xehetasun guztiak eman beharko dira. Dekretu horren bidez, hain zuzen ere, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zen. Hona hemen xehetasun horiek:

1.– Dirulaguntzen kontzeptuak eta zenbatekoak.

2.– Gehieneko epeak, hauek hain zuzen ere:

a) Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Planigintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailak dirulaguntzaren esleipen-ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, laguntza jasotzen duen erakundeak gehieneko hiru hilabeteko epea izango du diruz lagundutako lanak egiteko.

b) Lanak esleitzen zaizkien taldeekin hitzartzen diren kontratuetan, beren beregiz jasota utzi beharko da gehieneko epe noiz arteko epea dagoen lanak idazteko. Aholkularitza-enpresekin kontratua sinatzen denetik aurrera hasiko dira zenbatzen epe horiek (kontratu horien kopia bat Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzara bidali beharko da). Gehieneko epe hori hamabi hilabetekoa izango da.

c) Badago epe hori luzatzeko aukera, Lurralde Antolamenduko zuzendariaren ebazpen bidez. Horretarako, erakunde onuradunak luzapen-eskabide bat aurkeztu beharko du, lanak garaiz egin ezinik dabilzala igarri bezain azkar, eta, hori bai, epea amaitu baino lehen, beti. Eskabide horrekin batera, txosten batean jasota, luzapena zergatik eskatzen duten azaldu beharko dute, eta dena delako agiria aurkezteko zein epe proposatzen duten ere azaldu beharko dute.

d) Epea luzatzea erabakitzekotan, galduta duten bezain beste denbora luzatuko zaie, non eta onuradunak ez duen gutxiago luzatzeko eskatu.

**9. artikulua.**– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Emandako dirulaguntza dena batera ordainduko da. Ordainduko da, hain zuzen ere, jaso behar duen erakundeak adierazten duenean, agiriak aurkeztuz, egin dituela diruz lagundutako lanak, eta zehazten duenean benetan zenbat ordaindu dituen.

2.– Diruz lagundutako lanak egin dituela egiaztatze, erakunde onuradunak agiri hauek bidali be-

5.– Transcurrido el plazo máximo sin que se haya notificado la resolución, ésta se podrá considerar como denegada, a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sin perjuicio de la obligación que dicha Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

**Artículo 8.**– Contenido de la resolución de adjudicación de las subvenciones.

En la resolución de adjudicación de las subvenciones se harán constar todos los extremos señalados en el artículo 51.7 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en concreto:

1.– Conceptos y cuantías subvencionadas.

2.– Plazos máximos, que serán los siguientes:

a) La entidad beneficiaria realizará la contratación de los trabajos objeto de la subvención en un plazo no superior a tres meses a partir del día siguiente al de la fecha de notificación de la Resolución de adjudicación de la subvención por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

b) En los contratos a suscribir con los equipos adjudicatarios de los trabajos se dejará constancia expresa de los plazos máximos de redacción de los trabajos. Dichos plazos empezarán a contar desde la suscripción del contrato con las empresas consultoras (de los que se remitirá copia a la Dirección de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco). Este plazo máximo de ejecución será de doce meses.

c) Este plazo podrá ser prorrogado mediante resolución del Director de Ordenación del Territorio. Para ello, la entidad beneficiaria deberá presentar un escrito de solicitud de prórroga, en el momento en el que se detecte un retraso en la ejecución de los trabajos y siempre con antelación a la finalización del plazo, al que se acompañará una memoria justificativa de las razones que motivan dicha solicitud, así como una propuesta del plazo previsto para la presentación del correspondiente documento.

d) En el supuesto de que se resuelva conceder la prórroga, ésta será igual al tiempo perdido, a no ser que el beneficiario de la subvención pidiera otro menor.

**Artículo 9.**– Pago de la subvención.

1.– El abono de la subvención concedida, se efectuará de una sola vez, mediante un único libramiento, tras la presentación por la entidad beneficiaria de la documentación acreditativa de la realización de los trabajos subvencionados y del efectivo costo de los mismos.

2.– A los efectos de acreditar la realización de los trabajos subvencionados, la entidad beneficiaria remi-



harko ditu Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzara, lanak guztiz amaitzen dituenetik gehienez hilabeteko epean, eta Kartografia Zerbitzuak emandako oinarri teknikoaren plegu eguneratua bete beharko du:

a) Maparen 120 ale, paperean, eta euskarri digitala inprentarako prest dagoen materialarekin.

b) Fitxategi konprimatua PDF formatuan, mapa web bidez zabaltzeko eta maparen irudi georeferentziatua, paperean, pleguan zehaztutako formatuetan.

c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren toponimiaren berrikusitako datu-basea.

d) Mapa egiteko erabilitako geografia-informazioa duten fitxategi digitalak, oinarri teknikoaren pleguan finkatutako formatuen eta datuen ereduaren arabera.

3.- Agiri horiekin batera, diruz lagundutako lanak egiteko benetako gastua egiaztatzeko fakturak ere aurkeztu beharko ditu.

4.- Ordaindutako kopuruak ezin du, inoiz ere ez, diruz lagundutako lanak egiteko ordaindutako soldaten ordain egiaztatu garbiaren % 70 (BEZa eta gainerako zergak kenduta) baino handiagoa izan.

5.- Laguntza ordaindu baino lehen, diruz lagundutako lanak baldintza teknikoaren pleguaren arabera behar bezala egin ote dituzten ikusi beharko da (plegu hori ebazpenaren baitan egongo da). Hori horrela bada, erakunde onuradunak artikuluko honetako orain arteko paragrafoetan zehazturik dauden agiriak aurkeztu dituenetik, gehienez ere hiru hilabeteko epea egongo da ordainketa egiteko.

**10. artikulua.**– Informazioaren berri ematea.

Bai Eusko Jaurlaritzak bai erakunde onuradunek nahi duten moduan zabaldu ahal izango dute dirulaguntza honen haritik sortutako informazio guztia.

**11. artikulua.**– Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honetako dirulaguntza jaso izanagatik ere, beste edozein erakunde publiko edo pribatuk emandako beste edozein ere jaso daiteke, bateragarriak baitira. Onuradunen batek dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, beste dirulaguntza hori soldaten zenbatekotik kenduko da, hau da, edozein erakunde publiko edo pribatuk gauza berbererako emandako laguntza horren zenbatekoa kendu, eta geratzen den kopurua erabiliko da 5. artikuluko ehunekoak aplikatzeko oinarri modura.

**12. artikulua.**– Dirulaguntza jasotzen duten entitateen betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzak jaso behar dituzten erakundeek betebeharrak izango dituzte, beti:

tirá a la Dirección de Ordenación del Territorio, en el plazo máximo de un mes desde su completa terminación, los siguientes entregables cumpliendo el pliego actualizado de bases técnicas facilitado por el Servicio de Cartografía:

a) 120 ejemplares del mapa en papel y soporte digital con el material preparado para la imprenta.

b) Archivo comprimido en formato PDF para la difusión del mapa vía web e imagen georeferenciada del mapa en papel en los formatos establecidos en el pliego.

c) Base de datos revisada de la toponimia de la Viceconsejería de Política Lingüística.

d) Ficheros digitales con la información geográfica empleada para la realización del mapa, en base al modelo de datos y los formatos establecidos en el pliego de bases técnicas.

3.- Junto con la indicada documentación, habrá de acompañar las facturas acreditativas del efectivo gasto incurrido como consecuencia de los trabajos subvencionados.

4.- En ningún caso, el importe de la cantidad abonada superará el 70% del coste neto (excluidos IVA y demás impuestos) acreditado de los honorarios de la realización de los trabajos subvencionados.

5.- El pago se efectuará, una vez comprobado el correcto cumplimiento de la realización de los trabajos subvencionados de acuerdo con el pliego de condiciones técnicas, que formará parte de la Resolución, en el plazo máximo de tres meses a contar desde la presentación, por parte la entidad beneficiaria, de la documentación justificativa indicada en los apartados precedentes de este artículo.

**Artículo 10.**– Difusión de la información.

De toda la información derivada de esta subvención, podrán darle la difusión que consideren oportuna, tanto el Gobierno Vasco, como las entidades beneficiarias respectivas.

**Artículo 11.**– Compatibilidad con otras subvenciones.

La percepción de la subvención establecida en la presente Orden es compatible con cualquier otra que pudiera otorgar cualquier entidad pública o privada. En caso de concurrencia de subvenciones, se deducirá del costo de los honorarios, calculados conforme a la fórmula prevista en el artículo 5, la cuantía subvencionada para la misma finalidad por cualquier entidad pública o privada, siendo la cantidad resultante la base para aplicar los porcentajes previstos en el artículo 5.

**Artículo 12.**– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Las entidades beneficiarias de la subvención regulada en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Emandako dirulaguntza onartu egin behar dute. Dirulaguntza eman zaiela jakinarazten dien idazkia jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek ukoa idatziz eta berriaz adierazten ez badute, dirulaguntza onartu egiten dutela ulertuko da.

b) Justu ematen zaien horretarako erabili beharko dute dirulaguntza.

c) Onuradunak bere gain hartuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.2 artikuluan ezartzen diren betebeharrak, eta, bereziki, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, aginduta dituzten zereginak betetzearren, xedapen honen kontura jasotako laguntzei buruz argibiderik eskatzen badiote, eman egin beharko die.

d) Lanak egiteko eta entregatzeko orduan, hau da, 8. artikuluko 2. ataleko a) eta b) paragrafoetako aginduak betetzeko orduan, gutxienez baldintza teknikoan plegua bete beharko dute. Plegu hori Lurrealde Antolamenduko Zuzendaritzak banatzen du, dirulaguntza eman izanaren ebazpenarekin batera.

e) Papereko mapetan eta euskarri digitalean, berriaz adierazi behar da hura Ingurumen, Lurrealde Planigintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak diruz lagundu duela, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunari buruzko araudian xedatutakoaren arabera (Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretua, 205. EHAAn argitaratua).

**13. artikulua.**– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza ematerakoan kontuan izan behar diren baldintzak edonola aldatuz gero baina xedea beteta dagoela ulertuz gero, edo aldi berean beste edozein erakunde publiko edo pribaturen batetik dirulaguntzarik lortuz gero, dirulaguntzak emateko ebazpena ere alda daiteke. Ondorio horietarako, Lurrealde Antolamenduko Zuzendaritzak dagokion likidazio-ebazpena egingo du, emandako dirulaguntzen zenbatekoa egokitzeko.

**14. artikulua.**– Ez-betetzeak.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetatik zer edo zer bete gabe geratu dela agertzen bada, besteak beste lanak ez badu baldintza teknikoan plegua betetzen, dirulaguntza-eskubiderik gabe geratuko dira, eta jasota duten dirua eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkio. Hori guztia, Euskadiko Ogasun Orokorraren Printzipio Antolatzailei buruzko Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Le-

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención, las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Asumir las obligaciones que se establecen en el artículo 50.2 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, en particular, la de facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto a las subvenciones recibidas con cargo a la presente convocatoria.

d) Cumplir en la ejecución y en las entregas del artículo 8 apartado 2 párrafos a) y b) como mínimo el pliego de condiciones técnicas que entrega la Dirección de Ordenación del Territorio conjuntamente con la Resolución de concesión de la ayuda.

e) En los mapas en papel y en soporte digital, deberá hacerse mención expresa de que ha sido subvencionada por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, cumpliendo lo dispuesto en la Normativa de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco (Decreto 318/1999, de 31 de agosto, por el que se regula el Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco, publicado en el BOPV n.º 205).

**Artículo 13.**– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de subvenciones. A estos efectos, por la Dirección de Ordenación del Territorio se dictará la oportuna resolución de liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

**Artículo 14.**– Incumplimientos.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención, entre otras que el trabajo no se ajuste al pliego de bases técnicas, dará lugar a la pérdida del derecho a la subvención y, en su caso, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto Legislativo

gengtza Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak diotenari jarraituz.

**15. artikulua.**– Errekurtsoak.

Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean; halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**– 2. artikuluan zehazturik dagoen kopuru hori ez da aldaezina: alda daiteke, eskatu diren dirulaguntza guztien zenbateko osoa kontuan hartuta, edo Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren beste dirulaguntza-programa batzuetatik agortu gabe geratu diren kopuruaren arabera. Hala bada, ezer ebatzi baino lehenago, zer gertatu den jakinarazi beharko da, Lurralde Antolamendu eta Uren sailburuordearen ebazpen bidez.

**Bigarrena.**– Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko aginduko 5.3 artikulua dioena kontuan hartuta (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura espedienteak aurretiaz nola izapidetu arautzen du agindu horrek), agindu honetako dirulaguntzak ebazteko, derrigorra da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011. urterako aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa edukitzea.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Agindu honetan ezarri ez diren prozedurazko alderdi guztietarako, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakora joko da (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen testua).

**Bigarrena.**– Lurralde Antolamenduko zuzendariak badu nahikoa ahalmen agindu hau garatzeko eta betearazteko beharrezko argibideak emateko.

**Hirugarrena.**– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 1a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,  
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

**Artículo 15.**– Recursos.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**– El importe consignado en el artículo 2 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las subvenciones solicitadas, o en función de las disposiciones económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de subvenciones del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Con carácter previo a la resolución de las mismas de dicha circunstancia se dará publicidad mediante la correspondiente Resolución del Viceconsejero de Ordenación del Territorio y Aguas.

**Segunda.**– A los efectos contemplados en el artículo 5.3 de la Orden de 26 de abril de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regula la tramitación anticipada de expedientes con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la resolución de las subvenciones que convoca la presente Orden, queda supeditada a la previa existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año de 2011.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– En todos aquellos aspectos procedimentales no previstos en la presente Orden, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

**Segunda.**– Se faculta al Director de Ordenación del Territorio para dictar las instrucciones necesarias para el desarrollo y cumplimiento de la presente Orden.

**Tercera.**– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2010.

La Consejera de Medio Ambiente,  
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.